



EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren ebaluazioa 2020

Jarraipen-memoria

AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA.....	6
I. ZATIA: BERDINTASUNERAKO VII. PLANAREN JARRAIPENA. LABURPENA (2020)	7
1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK	8
2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNU ONA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO EKINTZAK.....	10
2.1. Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriei lotutako emaitzak	10
2.1.1. Berdintasunerako araudi espezifikoa.....	10
2.1.2. EAEko berdintasun-politiken plangintza	11
2.1.3. Berdintasunerako unitate administratiboak eta euskal administrazioetan	13
2.1.4. Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta	16
2.1.5. Arauen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa EAEko administrazioetan.....	17
2.1.6. Partaidetza berdintasun-politikan	18
2.1.7. Berdintasunari buruzko prestakuntza administrazio publikoetan	19
2.1.8. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan	21
2.1.9. Berdintasun-alorreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan.	22
2.2. Esku hartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak	26
2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak.....	26
2.2.2. Berdintasun-ekintzen gaiak	28
2.2.3. Esku-hartzeen motak.....	28
2.2.3.1.- Prestakuntza	30
2.2.3.2.- Sentsibilizazioa	33
2.2.3.3.- Informazioa, ezagutza eta analisisa.....	34
2.2.4. Ekipamenduak eta zerbitzuak sortu eta kudeatzea	35
2.2.5. Berdintasun-ekintzen onuradunenganako hurbilpena (erakundeak nahiz pertsonak)	36
2.2.5.1.- Ekintzen onuradunak	36
2.2.6. Ekintzak egokitze neurrien erabilera	38
2.2.7. Esku-hartzeen kostua.....	38

**II. ZATIA: EUSKAL HERRI-AGINTEEK BERDINTASUNAREN ARLOAN
DUTEN JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA. 2020 41**

1.	GOBERNANTZA.....	42
1.1.	Berdintasunaren arloko araudia.....	42
1.2.	Berdintasunaren arloko plangintza	42
1.3.	Administrazio-unitateak eta langileak	45
1.4.	Berdintasunaren arloko politiken baliabide ekonomikoak	47
1.5.	Eraginari buruzko aurretzako ebaluazioak	48
1.6.	Berdintasun-politiketan parte hartzea	49
1.7.	Berdintasunaren arloko prestakuntza	50
1.8.	Berdintasun-klausulak kontratazio publikoetan	51
1.9.	Gobernantzaren arloko beste berdintasun-helburu garrantzitsu batzuen bilakaera.....	53
2.	ESKU-HARTZEAK.....	57

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula:	Berdintasunaren arloko planak indarrean dituzten erakunde parte-hartzaileen kopurua eta planen ezaugarriak. 2020	42
2. taula:	Berdintasunaren arloko planen edo programen ebaluazioa edo jarraipena egin duen erakunde-kopurua. 2020	43
3. taula:	Berdintasunaren arloko barne-planak dituen erakunde-kopurua . 2020.....	44
4. taula:	Barneko berdintasun-planik ez duten erakunde lan-antolaketa txertatutako neurriak. 2020	44
5. taula:	Berdintasunaren arloko organoak edo administrazio-unitateak dituen erakunde-kopurua 2020	45
6. taula:	Berdintasuna sustatzeko lanaren ezaugarriak. 2020.....	45
7. taula:	Teknikariak, kontratu-motaren arabera (%). 2020	45
8. taula:	Berdintasuna sustatzeko eginkizunak dituzten teknikariak. 2020	46
9. taula:	Arduraldi eskusiboa duten langileak, lanaldi-motaren arabera. 2020	46
10. taula:	Lanpostu-zerrendetan dauden berdintasunaren arloko langileak eta A mailako lanpostuak. A. 2020	46
11. taula:	Bardintasunaren arloko aurrekontu orokorra eta espezifiko (identifikatua, eta eurotan).2020	47
12. taula:	Gauzatu diren berdintasunaren arloko aurrekontuen xehakapena. 2020.....	47
13. taula:	Genero-ikuspegia aurrekontuetan sartzen egindako aurrerapausoak. 2020	47
14. taula:	Eraginari buruzko ebaluazioa egin zaien arauen kopurua eta ezaugarriak. 2020	48
15. taula:	Erakundeek arauetan berdintasuna lortzeko ezarri dituzten neurri-motak. 2020.....	48
16. taula:	Genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioak eta jarraipena egiteko onartu diren gidalerroak, akordioak... 2020	48
17. taula:	Herritarren parte-hartzea eta berdintasuna.2020	49
18. taula:	Erakundeek sustatu duten berdintasunaren arloko barne-prestakuntza 2020	50
19. taula:	Berdintasunaren arloko barne-prestakuntzak izandako parte-hartzea, kategorien arabera. 2020	50
20. taula:	Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzak (ez barnekoak, ez IVApek antolatuak) izandako parte-hartzea. 2020.....	50
21. taula:	Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzak (ez barnekoak, ez IVApek antolatuak) izandako parte-hartze xehaketa, kategorien arabera. 2020	51
22. taula:	Berdintasun-irizpideak kontratueta. 2020	51
23. taula:	Berdintasun-irizpideak hitzarmeneta. 2020	51
24. taula:	Berdintasun-irizpideak dirulaguntzetan eta laguntzetan. 2020	52
25. taula:	Berdintasun-irizpideak beketan. 2020.....	52
26. taula:	Irizpideak kontratazio-prozesuetan aplikatzeko arauak eta gidalerroak onartzea. 2020	52
27. taula:	Genero-ikuspegia plan sektorialetan eta zeharkako planetan sartzea. 2020	53
28. taula:	Berdintasuna sustatzeko koordinazio-egituretan* parte hartzea 2020	53
29. taula:	Sail arteko koordinazio-egituren bilera-kopurua (berdintasuna). –	53
30. taula:	Sailen barruko koordinazio-egituren bilera-kopurua (berdintasuna). 2020.....	53
31. taula:	Beste koordinazio-egitura batzuk, indarkeriari lotutako protokoloak eta lerro egonkorak. Nazioarteko lankidetzak 2020	54
32. taula:	Genero-ikuspegia azterlan eta estatistika sistematikoetan edo puntualetan txertatzea. 2020.....	54
33. taula:	Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azterlanak. 2020	54
34. taula:	Azterlan sektorialak, gaien arabera. 2020	54
35. taula:	Kolektiboei edo emakume-taldeei buruzko azterlanak. 2020	55
36. taula:	Hautaketa-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2020	55
37. taula:	Enplegu publikoan sartzeko, mailaz igotzeko... epaimahaiak, sariak emateko epaimahaiak, etab. 2020	56
38. taula:	Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua kide anitzeko organoetan 2020	56
39. taula:	Identifikatu den jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020.....	57
40. taula:	Aurreko urteko jarraipenak izandako jarduketan kopurua eta ehunekoa, erakunde-motaren arabera. 2020	57
41. taula:	Helburu politiko zehatz bat duen ekintza-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	57
42. taula:	Gai zehatz batzuei buruzko jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020.....	58
43. taula:	Esku-hartze jakin baten inguruan antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020....	58
44. taula:	Herritarrentzako prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	58
45. taula:	Prestakuntza-helburu zehatzak (herritarren prestakuntza) lortzeko antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	59
46. taula:	Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretan parte hartu duen pertsona-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	59
47. taula:	Zerbitzu publikoei prestakuntza-helburuen inguruan eskaini zaien prestakuntza-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	59
48. taula:	Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretan parte hartu duen pertsona-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	59
49. taula:	Sentsibilizazio-jardueren kopurua, tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2020	60

50. taula:	Jarduera zehatz batzuei buruzko informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduketen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	60
51. taula:	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduketen kopurua eta ezaugarriak, erakundearen arabera. 2020	60
52. taula:	Zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua, erakunde-motaren arabera. 2020	60
53. taula:	Jarduketa-kopurua, hartzaileen eta erakunde-motaren arabera. 2020	61
54. taula:	Gizonentzat, emakumeentzat eta beste identitate batzuentzat berariaz antolatutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	61
55. taula:	Kolektibo zehatzetan oinarritutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	61
56. taula:	Berdintasunaren arloko beste helburu batzuei (ez soilik emakumei eta gizonei) lotutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	61
57. taula:	Hainbat kolektiboren ezaugarrietara egokitzeko neurriak ezarri dituen jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020	61
58. taula:	Kostu eta guzti jakinarazitako jarduketak, erakunde-motaren arabera. 2020	62
59. taula:	Jakinarazitako jarduketen kostua, erakunde-motaren arabera. 2020	62

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa:	Parte hartu duten erakundeetatik berdintasuna sustatzeko araudia duten erakundeak	11
2. grafikoa:	Ebaluazioan parte hartu duten erakundearen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2020	14
3. grafikoa:	EAEko berdintasun-langileen kopurua, erakundearen arabera. 2020	14
4. grafikoa:	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2020	15
5. grafikoa:	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak (LO+LP), erakundearen arabera. 2020	15
6. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera. 2020	16
7. grafikoa:	Aurrekontu xehakatuak. 2020	17
8. grafikoa:	Eraginari buruzko txosten-kopurua, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenen kopurua eta araua neutroa dela ezarri dutenen kopurua, erakundearen arabera. 2020	18
9. grafikoa:	Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osakeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2020	19
10. grafikoa:	Emakumeak eta gizonak EAEko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan. 2020	20
11. grafikoa:	Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEErena). 2020	20
12. grafikoa:	Berdintasunean trebatutako langileak, erakundearen arabera. 2020	20
13. grafikoa:	Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2020	21
14. grafikoa:	Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza, hitzarmen eta beketan. 2020	22
15. grafikoa:	Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2020	23
16. grafikoa:	Sail arteko eta barruko egiturak eta 2020an egindako bileren kopurua	23
17. grafikoa:	Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua epaimahaietan 2020	25
18. grafikoa:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2020	25
19. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean garatutako jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2020	26
20. grafikoa:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketen kopurua. 2020	27
21. grafikoa:	Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketen kopurua. 2020	28
22. grafikoa:	Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2020	30
23. grafikoa:	EAEko berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrak), erakundearen arabera. 2020	31
24. grafikoa:	Herritarrak trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2020	31
25. grafikoa:	EAEko berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2020	32
26. grafikoa:	Zerbitzu publikoentzako prestakuntza-jarduketen kopurua, helburuaren arabera. 2020	32
27. grafikoa:	Herritarrentzako prestakuntzan eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua. 2020	33
28. grafikoa:	Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2020	33
29. grafikoa:	Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2020	34
30. grafikoa:	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2020	34
31. grafikoa:	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketen kopurua, oinarritzko edukiaren arabera. 2020	35
32. grafikoa:	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2020	35
33. grafikoa:	Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketen kopurua. 2020	36
34. grafikoa:	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2020	36
35. grafikoa:	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2020	37
36. grafikoa:	Bestelako desberdinkeriak borrokatuz bideratutako ekintzen kopurua 2020	37
37. grafikoa:	Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2020	38
38. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketen kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta dutenak. 2020	39
39. grafikoa:	Jakinarazitako jarduketen kostu osoa, erakundearen arabera (milakoetan). 2020	40
40. grafikoa:	Berdintasunaren arloko planak dituzten udalerrak eta foru-aldundien kopurua, baldin eta identifikatutako arloek ere planen ezaugarrien parte hartu badute. 2020	43

0. AURKEZPENA

Txosten hau Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko 2/1998 Legearen 4. artikulua ezarritako betebeharrak erantzuteko egin da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen da memoria bat egin behar dela EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten duten plangintzarekin lotutako jarduerak jasotzeko, botere publikoek egindako jardueraren jarraipena egin ahal izateko.

Egitura eta edukiak

Memoria honek aurreko txostenen antzeko egitura du, EAEko administrazioan berdintasunaren arloko politika publikoen ezarpenen izandako aurrerapenak eta atzerapenak baloratu ahal izateko, ezertan eragotzi gabe plangintzan edo jarraipena egiteko tresnan bertan egindako aldaketan ondoriozko egokitzapenak sartzea.

Txostena bi zatitan banatuta dago: alde batetik, berdintasunaren arloko jarduketari buruzko informazio garrantzitsua jaso da, eta, beste batetik, jarduketa horiei buruzko eranskin estatistiko bat, tauletan. Zehazki, emaitzak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren egitura kontuan hartuta jaso dira:

- **Gobernantza Onerako programak eta neurriak.** Planak 5 programa eta 15 neurri biltzen ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak jaso eta zabaltzen dituztenak, berdintasun-printzipioa euskal botere publikoen antolamenduan eta funtzionamenduan txertatzeko.
- **Berdintasunaren arloan esku hartzeko ardatzak.** Bloke honek 3 ardatz ditu, eta, haietan barne hartuta, 8 programa eta 22 helburu estrategiko: Hona hemen ardatzak: emakumeen ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko; eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Metodologia

Erakundeek emandako informazio aplikazio informatiko baten bidez jaso da. Aplikazio horrek bi galdera-sorta ditu. Lehenengoa Gobernantza Onari buruzkoa da, eta bakarra da erakunde bakoitzarentzat. EAEko erakundeek dituzten araugintza-betebeharren betetze-maila jasotzen du, antolakuntzan genero-ikuspegia zenbateraino txertatu duten kontuan hartuta. Beste galdera-sorta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko esku-hartze ardatzei dagokienez erakundeek garatu dituzten jarduketari buruzkoa da, eta ebaluazio-urtean garatutako ekintza adina galdera-sorta¹ bete daitezke. Memoria honetan aurkezten den informazioa 2021eko martxotik irailera bitartean jaso eta baliozkotu da, eta 2020an egindako ekintzei dagokie.

¹ Jarduketa esanguratsu eta garrantzitsuei buruzko informazioa eskatzen zaie erakundeei.

**I. ZATIA:
BERDINTASUNERAKO VII. PLANAREN
JARRAIPENA.
LABURPENA (2020)**

1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren emakume eta gizonen berdintasunerako planek orientazio-tresnatzat hartzen dute berdintasunaren arloko plangintza. Izan ere, botere publikoek oro har izan behar dituzten printzipioak eta helburuak identifikatzen dira, baina administrazio bakoitzak diseinatu eta ezarri behar ditu berdintasunaren arloan proposatutako helburuak lortzeko ekintzarik egokienak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta haren geroko araugintza-garapenak gobernu onaren eremua mugatzen dute, EAEn berdintasunaren arloko baliabideek duten bilakaeraren jarraipena bermatzeko. Txosten honek, halaber, botere publikoek egindako ekintzak aztertzen ditu eta EAEko berdintasun-politiken emaitzak aurkezten ditu.

Berdintasunaren arloko plangintzaren oinarritzko alderdiak eta hainbat eremu eta esparrutan berdintasuna sustatzeko garatutako jarduketaren ezaugarriak aztertzen dira. 2020an, analisisian 129 erakunderen edukia jaso da: Eusko Jaurlaritzako 12 sail; hiru foru-aldundiak; 74 udal eta askotariko mankomunitateak, kuadrillak, partzuergoak, erakunde autonomoak (EEAA), entitate publikoak (EEPP) eta kapital publikoko enpresak (KPE), eta berdintasunaren esparruan eginkizun garrantzitsua duten beste entitate eta erakunde batzuk (adibidez, EHU eta Batzar Nagusiak).

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeek kopurua. 2020

Erakundeak	Kopurua
Eusko Jaurlaritzako sailak	12
Foru-aldundiak	3
Udalak ²	74
Mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak ³	10
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak ⁴	17
Kapital publikoko enpresak	10
Bestelako instituzio eta erakundeak	3
GUZTIRA	129

Jarraian, memoria egiteko informazioa emanez ebaluazioan parte hartu duten erakundeek eta entitateek zerrenda jaso da.

² 62 udalek erantzun diote Gobernantzaren galdera-sortari, eta 52 udalek jarduketa-fitxak sartu dituzte.

³ Kuadrilla eta mankomunitate hauek 77 udalerrri hartzen dituzte guztira.

⁴ Epigrafe honetan Emakunde ere badago.

Abadiñoiko Udala
 Abaltzisketako Udala
 Amezketako Udala
 Amurrioko Udala
 Andoaingo Udala
 Arantzazuko Udala
 Arraia-Maeztuko Udala
 Artzentalesko Udala
 Artziniegako Udala
 Asteasuko Udala
 Aiarako Udala
 Azkoitiko Udala
 Baliarraingo Udala
 Barakaldoko Udala
 Beasaingo Udala
 Bergarako Udala
 Bermeoko Udala
 Berrizko Udala
 Bilboko Udala
 Kanpezuko Udala
 Galdakaoko Udala
 Debako Udala
 Donostiako Udala
 Eibarko Udala
 Elgoibarko Udala
 Elorrioko Udala
 Ereñoko Udala
 Errenterriako Udala
 Etxebarriko Udala
 Ezkio-Itsasoko Udala
 Foruko Udala
 Gatikako Udala
 Gernika-Lumoko Udala
 Getariako Udala
 Getxoko Udala
 Gordexolako Udala
 Hernaniko Udala
 Irungo Udala
 Lagrango Udala
 Lazkaoko Udala
 Legorretako Udala
 Leioako Udala
 Lezoko Udala
 Lizartzako Udala
 Mendaroko Udala
 Mundakako Udala
 Mungiaiko Udala
 Nabarnizko Udala
 Oiartzungo Udala
 Okondoko Udala
 Ordiziako Udala
 Urduñako Udala
 Orendaingo Udala
 Orioko Udala
 Orozkoko Udala
 Otxandioko Udala

Pasaiaiko Udala
 Urizaharreko Udala
 Portugaleteko Udala
 Santurtziko Udala
 Sestaoko Udala
 Soraluzeko Udala
 Ugao-Miraballeseko Udala
 Urnietako Udala
 Usurbilgo Udala
 Haranako Udala
 Gasteizko Udala
 Zaldibarko Udala
 Zaldibiako Udala
 Zarauzko Udala
 Zeberioiko Udala
 Zizurkilgo Udala
 Zumaiako udala

Aiarako Kuadrilla (5 udalerri)
 Añanako Kuadrilla (10 udalerri)
 Kanpezuko-Arabako Mendialdeko Kuadrilla (6 udalerri)
 Arabako Lautadako Kuadrilla (8 udalerri)
 Eudel
 Haurreskolak
 Debabarreneko Mankomunitatea (8 udalerri)
 Lea-Artibai Amarkomunazgoa (8 udalerri)
 Tolosaldeako Mankomunitatea (28 udalerri)
 Saiatz Mankomunitatea (4 udalerri)

Lehendakaritza
 Osasun Saila
 Hezkuntza Saila
 Lan eta Justizia Saila
 Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
 Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
 Segurtasun Saila
 Ogasun eta Ekonomia Saila
 Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
 Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
 Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
 Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arabako Foru Aldundia
 Bizkaiko Foru Aldundia
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Emakunde
 Polizia Akademia
 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
 Uraren Euskal Agentzia
 Lehiaren Euskal Agintaritza
 Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
 Eustat
 EEE. Energiaren Euskal Erakundea
 HABE
 Finantzen Euskal Institutua
 Etxepare Euskal Institutua
 HAAE
 Kontsumobide. Kontsumoko Euskal Institutua
 Lanbide
 Osakidetza
 Osalan
 Unibasq
 Basquetour
 EJI
 Euskotren
 Ihobe
 Itelazpi
 Izenpe
 Neiker
 Osatek
 SPRI
 Visesa

HAZI
 Bizkaiko Batzar Nagusiak
 Euskal Herriko Unibertsitatea

2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNU ONA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO EKINTZAK

Kapitulu honetan honela egituratu dira edukiak:

- Gobernantza oneko programak, berdintasunaren printzipioa Euskadiko botere publikoen antolamenduan eta funtzionamenduan txertatzen dutenak.
- VII. Planean esku hartzeko zehaztutako hiru ardatzetako bakoitzean erakundeek garatutako jarduketak.

2.1. Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriei lotutako emaitzak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikuluan honela definitzen da **genero-mainstreaminga** (gero VII. Planean jaso zen):

«Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea da, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan, eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea».

Lehen atal honetan, labur jaso dira VII. Planean xedatutako mainstreaming-helburuen bilakaeraren inguruko emaitzarik garrantzitsuenak.


2.1.1. Berdintasunerako araudi espezifikoa

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planak foru-erakundeak eta tokikoak/tokiz gaingidakoak sartu zituen berdintasunaren arloko arau espezifikoen emaile gisa, erakunde batzuek araudi horretara jotzen baitute berdintasun-planen tresna osagarri gisa, eta, kasu batzuetan, planen ordezkari gisa. Analisisan, kontuan hartu dira toki-maila (udalak), foru-maila (aldundiak) eta lurralde barruko maila (mankomunitatea eta kuadrillak).


Erakunde oso gutxi dute berdintasuna lortzeko araudi espezifikoa. Parte hartu duten 74 udaletatik soilik % 12,2k dute berdintasuna lortzeko arau bat, edo halako bat egiteko prozesuan daude. Mankomunitate eta kuadrillen kasuan, parte hartu dutenetako batek ere ez du halako araudirik. Azkenik, foru-aldundietako bik berdintasunaren arloko arauak dituzte, eta hirugarrena prestatzen ari da.

1. grafikoa: Parte hartu duten erakundeetatik berdintasuna sustatzeko araudia duten erakundeak

Udalak | 74



Foru-aldundiak



2.1.2. EAEko berdintasun-politiken plangintza

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen du *legegintzaldi bakoitzean, eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar duela. Plan horretan, hain zuzen, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira.*

Gaur egun, 2020an, EAEko Emakumeen eta Gizonen VII. Plana dugu aurrean. Plan hori tresna bat da foru-aldundiek eta udalek edo beste erakunde publiko batzuek planean ezarritako gidalerroak abiapuntutzat har ditzaten beren gidalerroak edo programak prestatzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da normalean planak onesteko epeek eta planen indarraldiak ez dutela bat egiten Administrazio Orokorraren esparru-planarekin. Orobat, kapital publikoko enpresetara ere iristen da berdintasun-alorreko esku-hartzeak planifikatzeko betebeharra.

Orokorrean, aztertutako erakundeen % 62,8k **berdintasun-plan bat dute indarrean**. Plan hauek garatuago dituzten erakundeak dira Eusko Jaurlaritza, beste erakunde batzuk, kapital publikoko enpresak eta erakunde autonomoak eta entitate publikoak. **Prestatze-prozesuan dauden planei** dagokienez, parte hartu duten erakundeetako 30 (% 23,4) fase horretan daude. Prestatze-prozesu horietako gehienak toki-erakundeetan ematen ari dira. Guztira 18 udal ari dira berdintasun-plan berria egiten; hortaz, berdintasunaren arloko plangintza dute jarraipenean parte hartu duten udalen % 77k gutxi gorabehera.

Parte hartu duten erakundeen eta planak dituzten erakundeen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2020

	Parte hartu duten erakundeak	Plana duten erakundeak	%
Eusko Jaurilaritza	12	12	% 100
Emakunde	1	1	% 100
Foru-aldundiak	3	1	% 33,3
Udalak	74	39	% 52,7
Mankomunitateak, kuadrillak eta partzuergoak	10	5	% 50,0
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	16	12	% 75,0
Kapital publikoko enpresak	10	8	% 80,0
Beste erakunde batzuk (EHU, Bizkaiko BN)	3	3	% 100
GUZTIRA	129	81	0

Plana duten erakundeen artean, gehienek **aurretiko diagnostikoak** egin dituzte plangintzan landu beharreko helburuak eta erronkak identifikatzeko (guztien % 90,1; aurreko ekitaldiko % 88,8ko ehunekoa baino handiagoa). Plan horiek egiteko, herritarrek orokorrean edo berariaz parte hartzeko prozesuen aplikazioa % 54,3koa baino ez da. Ohikoa da plan horiek aurreikusitako esku-hartzeen programazioaren egutegia zehaztuta izatea (% 87,7), baita halakoak garatzeko aurrekontuak zehaztea (% 74,1) eta edukia ezagutzera ematea (% 65,4) ere.

Planak egiteko prozesuetan erakunde bakoitzeko arlo ezberdinetako **teknikariek eta politikoe** modu sistematikoan **parte hartu dute** azken urteetan plangintza horren lanketan, erakunde gehienetan: plan guztien % 84k ekarpen horiek izan dituzte, eta gutxienak dira teknikarien edo politikarien parte-hartzea baino izan ez duten planak. Udalei dagokienez, gizarte-politikaren, kultura, euskara eta kirolaren, hezkuntzaren eta alkatetzaren arloak izan dira berdintasun-plan horietan gehien inplikatu direnak (txostenean jaso diren planen erdia baino gehiago).

Berdintasun-planen jarraipena eta ebaluazioa tresna garrantzitsua da prozesuak hobetzeko, ikasitakoa sartzan duelako eta kontuak emateko prozesuak ahalbidetzen dituelako. 2020an, berdintasun-planen % 86,4k jasota zeukaten nola egin jarraipena eta/edo ebaluazioa; kasu gutxiagotan (% 34,6) izan dute aurrekontu bat ebaluazioak egiteko, eta are gutxiago dira ebaluazio argitaratzeko asmoa dutenak (% 33,3).

Ohikoak dira, era berean, berdintasunarekin lotutako beste jarduketa- edo -programa batzuk, batez ere emakumeen aurkako indarkeria orokorra edo espezifiko (emakumeen salerosketa eta sexu-esplotazioa...) prebenitzekoak edo indarkeria horren aurka egitekoak. Tokiko mailan, jaietan segurtasuna bermatzeko planak ere maiz prestatzen dira.

Erakundeen barneko lan-jardueran **berdintasuna sustatzeko erantzukizuna** Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan⁵ dago zehaztuta, eta ezartzen du erakundeek barneko lan-plangintza bat izan behar dutela eta plangintza horrek genero-ikuspegia txertatu behar duela erakundeetan lan egiten duten pertsonen kudeaketan. EAEn, 2017an jarri zen indarrean Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2016an onetsi zen), eta, ondorioz, orokortu egin zen berdintasun-mandatuaren aplikazioa planaren aplikazio-eremuan sartzan diren erakunde horietan.

⁵ Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak antolatutako neurri-multzok dira; neurri horiek egoeraren diagnostiko bat egin ondoren hartuko dira, eta xede izango dute enpresan edo erakundearen emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuan oinarritutako bereizkeria ezabatzea.

Hala ere, EAEko erakundeetan oraindik ere oso mugatua da haren garapena. Eusko Jaurlaritzaz eta Emakundez gainera, hauek baino ez dute adierazi halakorik zutenik 2020an: 3 udalek; mankomunitate batek; 9 entitate publikok, erakunde autonomok eta kapital publikoko enpresak, eta beste erakunde batzuek, hala nola EHUK, HAZIk eta Bizkaiko Batzar Nagusiek. Plan horiek aldeztu aurreko diagnostiko batean oinarrituta egiten dira, eta kasu gehienetan, aurrekontua dute eslebita eta argitaratu egiten dira. Baina barneko planak dituzten kapital publikoko 5 enpresak, 2 erakunde autonomok, udal batek eta EHUK baino ez dute adierazi plan horien helburuak, ekintzak eta adierazleak kudeaketa publiko aurreratuaren eredu batean edo tresna baliokide batean sartuta daudela.

Plangintza berezirik ez badute ere, udal gehienek eta 3 foru-aldundiek esan dute beren erakundeetan **berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak** dituztela **beren barneko lan-politiketan** honako hauek lortzeko:

- Erraztasunak ematea norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko, lanbide-sustapenari kalterik egin gabe.
- Edozein diskriminaziok irautea dakarten oztopoak kentzea, emakumeei eta gizonei benetako berdintasun-baldintzak eskaintzeko enplegu publikora sartzean eta lanbide-karreraren zehar.
- Berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea, enplegu publikora sartzean eta lanbide-karreraren zehar.
- Hautaketa- eta balorazio-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.

2.1.3. Berdintasunerako unitate administratiboak eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak


4/2005 Legeak ezartzen duenez, EAEko Administrazioaren sailek berdintasuna bultzatzeko eta bultzada hori koordinatzeko eta zeregin horretan lankidetzan jarduteko unitate administratibo bat izango dute sailean bertan eta hari atxikitako erakunde autonomoetan. Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak betebeharrak hori bera ezartzen die erakunde autonomoei sozietateei eta gainerako entitate publikoei⁶.

Gainera, lege horrek ezartzen du beharrezkoa dela foru- eta toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatu, koordinatu eta garatuko dituen entitate, organo edo unitate administratibo bat egotea.

⁶ Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuaren 3. artikulua —Unitate administratiboak erakunde autonomo eta entitate publikoetan— arabera, ondorengo erakunde autonomo eta entitate publiko hauetan ere berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura izango duten unitate administratiboak egongo dira: Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak; HAEE-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak; HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak; Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzain Akademiak; Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak; EITB-Euskal Irrati Telebista; Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua; ETS-Euskal Trenbide Sarea.


Egitura horiek erabat formalizatuta daude Eusko Jaurlaritzako sailetan eta hiru foru-aldundietan. Mankomunitateen eta kuadrillen erdiek jakinarazi duenez, haiek ere badituzte egitura horiek. Parte hartu duten toki-erakundeetan, berriz, egitura horien presentzia urriagoa da⁷ (informazioa eman duten erakunde guztien % 48,6k baino ez dituzte egitura horiek sortuta), baina kapital publikoko enpresak eta, hein txikiagoan, Administrazio Orokorrari atxikitako erakunde autonomoak eta entitate publikoak dira berdintasunerako unitate edo organoen kopururik txikiena dutenak.

2. grafikoa: Ebaluazioan parte hartu duten erakundearen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2020



Erakundeek jakinarazi dute guztira **197 pertsona ari direla EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen, dedikazio osoarekin edo partzialarekin**⁸. Gehienak emakumeak dira (% 88,8), eta lanaldi osoan ari dira lanean batez ere (% 69,1). Aldi baterako enpleguak udal-eremuan, foru-aldundietan eta kapital publikoko enpresetan ari diren langileei eragiten die.

3. grafikoa: EAEko berdintasun-langileen kopurua, erakundearen arabera. 2020




⁷ Udalerri txikien eraginez, batez ere. Biztanle gehiago dituzten udalerrietan, kasu batzuetan, arlo orokorrago batean (gizarte-zerbitzuak, herritarrak...) integratutako berdintasuneko teknikari bat dute (azpikontratatuta), baina ez da erabakirik hartu egitura bereizi bat identifikatzeko.

⁸ Foru-aldundi batek esan du langile horietako batzuk aldi baterako kontratatu dituela (6 eta 9 hilabete), eta beste erakunde batzuek jakinarazi dute dedikazio partziala dutela.

Berdintasunaren arloan lan egiten duten pertsona guztietatik, % 54,8k (108) **gaiari buruzko 150 ordutik gorako prestakuntza** dute. Espezializazio hori dute, Emakundeko langileez gainera, Eusko Jaurlaritzako sailetako, foru-aldundietako eta mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoetako langileek.


Jasotako informazioaren arabera, administrazio A mailakoak dira emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko lan egiten duten langileen % 54,8, eta B eta C kategorietakoak dira % 15,2 eta % 14,7, hurrenez hurren.

4. grafikoa: Berdintasun-alarrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2020



Langile gehienek dedikazio eskusiboa dute Eusko Jaurlaritzan, foru-aldundietan, mankomunitateetan, kuadrilletan, partzuergoetan eta erakunde autonomoetan. Emakunden⁹, kapital publikoko enpresetan eta, batez ere, beste erakunde batzuetan, langileek uztartu egiten dituzte emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko lana beste eginkizun batzuekin.

5. grafikoa: Berdintasun-alarrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak (LO+LP), erakundearen arabera. 2020




⁹ Grafikoa Emakundeko teknikariak soilik sartu badira ere, erakunde horretako langile guztien zeregin eskusiboa berdintasuna sustatzea da, hori baita erakundearen jardun osoaren helburua.

2.1.4. Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak arautzen ditu eskumen-eremu bakoitzean genero-politikak garatzeko aurrekontuak. Eta ezartzen du Autonomia Erkidegoko administrazioak, foru-administrazioek eta toki-administrazioek lege horretan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta neurriak hartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitu eta zehaztuko dituztela beren urteko aurrekontuetan.

Berdintasunera bideratutako aurrekontutik, guztira 136,9 milioi eurokoa izan da 2020an **gauzatutako aurrekontua**. Informazioan jaso diren aurrekontu guztien % 78,3 (107,2 milioi €) Eusko Jaurlaritzako sailena da, eta % 4,3, Emakunderena. Erakunde autonomoek (% 9,8) eta udalek (% 5,3) ere ekarpen garrantzitsua egin dute aurrekontuetan berdintasun-politiketarako.

6. grafikoa: EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera. 2020



Aurreko ekitaldian bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak du aurrekontuko partidarik handiena EAEko erakundeek identifikatutako aurrekontu osoaren barruan: 84,9 milioi euro, hau da, Eusko Jaurlaritzako sailetan guztira gauzatutako aurrekontuaren % 79.


Berdintasuna sustatzeko esleitutako aurrekontuen eta benetan gauzatutako aurrekontuen arteko aldea aztertuz gero, erakunde gehienetan (foru-aldundiak, udalak, Emakunde) handiagoa da esleitutako aurrekontua gauzatutakoa baino. Mankomunitate eta kuadrilletan, erakunde autonomoetan eta entitate publikoetan¹⁰, kapital publikoko enpresetan edo Eusko Jaurlaritzan, berriz, gauzatutako aurrekontua handiagoa da, erakunde batzuetan ez baita identifikatu berdintasuna sustatzeko berariaz esleitutako aurrekontua, baina bai identifikatu dira aurrekontuarekin egindako esku-hartzeak.

¹⁰ Foru-aldundietan dagoen aldearen arrazoia da haietako batek ez duela kuantifikatu gauzatutako aurrekontua, baina bai esleitutakoa, eta Eusko Jaurlaritzako sailetan ohikoa da esleitutako aurrekontutzat jotzea berdintasun-unitateek dutena.

Berdintasunaren arloko aurrekontuak urriak dira oraindik ere erakundearen aurrekontu orokorrarekin alderatuta. Eusko Jaurlaritzako sailek dute ehunekorik esanguratsuena aurrekontu orokorrarekin alderatuta, baina, hala ere, gauzatutako orokorra 5.989.379.722 eurokoa da, eta berdintasunerakoa, 107.239.561 eurokoa, hau da, orokorraren % 1,8. Joera horretan salbuespena da Emakunde, zeinaren aurrekontua oso-osorik bideratzen baita emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzera.

Aurrekontu horiek 5 esku-hartze motatan banatzen dira: berdintasun-planak eta -programak, berdintasun-unitateak (langileen kostuak eta unitate horiek berdintasuna sustatzeko kudeatzen duten aurrekontua), berdintasunaren sustapenarekin lotutako egiturak eta zerbitzuak eta banakatu ezin diren beste partida batzuk. Aurrekontuen % 82,5 planetan eta programetan gastatzen da. Edonola ere, nabarmendu behar da erakunde batzuek (batez ere udalek) beren planetan sartzen dituztela ematen dituzten zerbitzuak edo berdintasunaren arloan diharduten langileak, eta, beraz, banakapena ez da erabat zehatza.

7. grafikoa: Aurrekontu xehakatuak. 2020



2.1.5. Arauen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa EAEko administrazioetan


Aurrekontuekin batera, EAEko administrazioetan arauen **genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak** sartzea funtsezko beste tresna bat izan da berdintasun-politika publikoak ezartzeko lanetan. Funtsezko zutabeetako bat da hori administrazioetan genero-zeharkakotasuna lortzeko.

Batzuetan, araudiak neutroa dirudi, baina desberdinkeriak sortzen eta birsortzen ditu sexua dela eta. Horregatik, arauak onetsi aurretik ebaluatu egiten dira, eremu horietan izan ditzaketen ondorioak aztertzeko. Arauaren jarduketara batek edo batzuek berdintasunaren kontrako ondorioak ekar ditzakeela uste bada, neurri zuzentzaileak hartuko dira indarrean jarri aurretik. Are gehiago; 4/2005 Legea indarrean jarri zenetik, ezinbestekoa da ebaluazioa EAEko Administrazio Orokorrean, eta 15 urte geroago, zenbait aurrerapen ikusten dira EAEko botere publikoetan, zuhurtziaz hartu behar badira ere.

Administrazio Orokorraren eremuan eta foru-administrazioenean jarraibideak onetsi dira, eta, ondorioz, eremu horietan normalizatu egin da **generoaren arabera eraginaren ebaluazio egitea** hala behar duten arauetan. Parte hartu duten erakunde guztiek emandako informazioaren arabera, 2020an 1.776 lege, dekretu, agindu... onetsi dira: 349tan generoaren arabera eraginari buruzko txostena egin da; 51 neutrotzat jo dira eta 42tan berdintasuna sustatzeko neurriak sartu dira.

Zenbait erakundek jakinarazi dute **generoaren arabera eraginari buruzko txostenak** egin dituztela: Eusko Jaurlaritzako sailek; foru-aldundiak; udalak; mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak, erakunde autonomoak eta entitate publikoak. Berdintasuna sustatzeko neurriak sartzearen ondorioz, 6 mota bereizten dira, eta, haien artean, genero-ikuspegia nabarmentzen da (11 kasu; batez ere, Eusko Jaurlaritza –4– eta udalak –5–). Hurrengo kategoria ohikoena parte-hartzearen sustapena da (7 kasu, Eusko Jaurlaritzako sailetan, udaletan, erakunde autonomoetan eta entitate publikoetan). Ez da neurririk hartu diskriminazio anizkoitza pairatzen duten emakumeei dagokienez.

8. grafikoa: Eraginari buruzko txosten-kopurua, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenen kopurua eta araua neutroa dela ezarri dutenen kopurua, erakundearen arabera. 2020




2.1.6. Partaidetza berdintasun-politiketan

Herritarren parte-hartzea lortzea EAEko administrazio publikoen helburuetako bat da, eta, berdintasunaren arloan, berdintasun-organo espezifiko bidez garatzen da (berdintasuna sustatzen lan egiten duten erakundeek edo pertsonak politika horiek zehazten eta haien jarraipena egiten dute egitura espezifikoetan parte hartuta), edo berariazkoak ez diren parte-hartzeko organoen bidez, arlo honetako gizarte zibileko erakundearen edo adituen laguntzarekin, eta/edo berdintasunerako funtzioak eta helburuak zehaztuta organo horientzat.

EAEko erakundeen informazioan jasotako organoen edo kontseiluen % 18 berdintasunaren arlokoak dira berariaz (erakunde parte-hartzaileek identifikatutako 222tik 40). Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiak, udalak, mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak eta Emakunde dira berdintasunaren arloan parte hartzeko halako egiturak dituzten erakundeak. Bestalde, berdintasunaren arloko espezifikoak ez diren partaidetza-organoei dagokienez, 40k berdintasunari lotutako eginkizunak eta helburuak zituzten; 43k berdintasuna sustatzen lan egiten duten erakundeak zituzten; 33tan berdintasunaren arloko adituek parte hartzen dute, eta 42k ordezkari-tza orekatua dute. Kasu guztietan, gehienak udalenak dira.

9. grafikoa: Berariaz berdintasun-alarrekoak diren edota funtzioetan nahiz osaeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2020



2.1.7. Berdintasunari buruzko prestakuntza administrazio publikoetan

4/2005 Legearen 17. artikulua xedatzen du ezinbestekoa dela berdintasunaren arloan prestakuntza duten langileak izatea EAEko administrazio publikoen jardunean genero-ikuspegia behar bezala txertatzen dela bermatzeko. Prestakuntza hori teknikariek eta erantzukizun politikoa duten pertsonak jaso behar dute, gutxienez oinarritzko ezagutzak izateko genero-desberdinkeriei eta -arrakala nagusiei buruz.

Horrez gainera, EAEko administrazio publikoetako langileen prestakuntzari buruzko artikulua horrek xedatzen du *euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituztela beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko. Izan ere, horrela, lege honetan biltzen diren xedapenak beteko dira eta, gainera, genero-ikuspegia administrazio-jardunean benetan integratzen dela bermatuko da*. Era berean, paragrafo honetan azaldutakoa arrakastaz betetzeko, *euskal herri-administrazioek beren langileak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan trebatzeko planak gertatu eta egikaritu behar dituzte, bai eta erantzukizun politikoa duten pertsonak sentsibilizatzeko jarduketak egin ere*. Bestalde, berdintasunaren arloko lanpostu espezifikoetan gaiari buruzko ezagutzak eskatu beharko dira lanpostuak betetzeko. Halaber, enplegu publikora sartzeko hautapen-prozesuetako gaien zerrenda guztiek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta printzipio horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari buruzko edukiak sartuko dituzte.


Berdintasun-politiken urteko jarraipenean, EAEko erakundeei informazioa eskatzen zaie beren langileek jasotako halako prestakuntzari buruz, bai erakundeek eurek sustatutako prestakuntzari buruzkoa, zein, beste instantzia edo erakunde batzuek sustatuta, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko edukiak ikastea ahalbidetzen duen prestakuntzari buruzkoa.

2020an, **berdintasunari buruzko prestakuntza-plan** bat dutela esan duten erakundeen kopurua txikia da oraindik ere (% 22), eta EAEko erakundeetan erakundeek eurek sustatutako prestakuntza-ekintzetan berdintasunari buruzko prestakuntza jaso duten 5.657 pertsonetatik gehienak emakumeak dira (3.643). Kategoriak, hau da banaketa: administrazioa, teknikariak, zuzendaritzakoak eta erantzukizun politikoa duten langileak. Hala, erakundeen arabera banatzen bada, parte-hartzerik handiena kapital publikoko enpresetako gizon teknikariena da (266). Eta erakundeen araberrako banaketa egin gabe, parte-hartzerik handiena emakume teknikariena da (564).


10. grafikoa: Emakumeak eta gizonak EAEko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan. 2020




11. grafikoa: Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEErena). 2020



12. grafikoa: Berdintasunean trebatutako langileak, erakundearen arabera. 2020



13. grafikoa: Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2020



2.1.8. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan

4/2005 Legearen 20. artikulua ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak lantzen ditu, eta ezartzen du kontratazio publikoan –kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak...– berdintasuna sustatzeko klausulak sartu behar direla, eta, ondorioz, botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute. Halaber, kontratazio horren adjudikaziodun den erakundeari edo pertsonari eskatzen dio emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko.

2020an egindako 2.730 kontratuetatik, % 85,4 berdintasun-irizpideak aintzat hartuta egin ziren:

- Emakundek (12) eta foru-aldundiek (19) baino ez dituzte sartu irizpide horiek kontratazio guztietan.
- Gehienek beren kontratuen % 80 baino gehiago egin dituzte berdintasun-irizpideak aintzat hartuta.
 - Eusko Jaurlaritzak (% 88,6); udalak (% 86,4); mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak (% 88,9); erakunde autonomoak eta erakunde publikoak (% 83), eta kapital publikoko enpresak (% 88,4).
- Beste erakunde batzuetan, berriz, kontratuen % 41 baino ez dira egin irizpide horiekin.

Berdintasun-irizpideak sartzeko betebeharra kontratua **gauzatzeko baldintza berezietan** sartzen da batez ere (% 47,7), eta gutxiagotan, beste alderdi batzuetan, hala nola xedean (% 8) edo adjudikazio-irizpideetan (% 5,4). Oso gutxitan sartu dira zehaztapen teknikoetan edo kaudimen tekniko eta profesionalean.

Hitzarmenen % 12,6an sartu dira berdintasun-irizpideak, eta oso gutxitan hitzarmenaren xedean (% 3) edo hitzarmena gauzatzeko baldintza berezietan (% 5,5). Erakundeen arabera:


- Emakundek baino ez ditu sartu berdintasun-irizpideak hitzarmen guztietan (3).
- Foru-aldundiek (% 91,3) eta beste erakunde batzuek (% 80,5) gehienetan sartu dituzte.
- Gainerako erakundeetan, kasu gutxitan sartu dira irizpideak: Eusko Jaurlaritzako sailak (% 10,2); udalak (% 5,8) eta erakunde autonomoak eta entitate publikoak (% 5,4).

Dirulaguntzak eta laguntzak aztertuz gero, % 17,2k berdintasun-irizpideak sartu dituzte:

- Emakundek (18), foru-aldundiek (37) eta mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoek (2) irizpideak sartu dituzte dirulaguntza eta laguntza guztietan.
- Gainerako erakundeek gutxiagotan sartu dituzte: Eusko Jaurlaritzako sailak (% 36,7), udalak (% 19,3), erakunde autonomoak eta entitate publikoak (% 18,8) eta beste erakunde batzuk (% 50). Kapital publikoko enpresetan ia ez dira sartu halako irizpideak (% 0,2).

Bekei dagokienez, % 9,8tan baino ez dira erantsi berdintasun-irizpideak.

14. grafikoa: Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza, hitzarmen eta beketan. 2020




2.1.9. Berdintasun-alorreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan.

Sektorekako eta zeharkako planak

4/2005 Legearen 3. artikulua legegintzako tresna honen ardatz izango diren printzipio orokorrak jasotzen ditu, eta, zehazki, 4. apartatuan ezartzen du genero-ikuspegia txertatu behar dela. Jarraipen honetan, erakunde parte-hartzaileek onetsitako sektorekako eta zeharkako planen kopurua aztertzen da, baita ikuspegi hori aintzat hartu den ala ez (diagnostikoa, helburuak, jarduketak) eta, planak egiteko prozesuan edo haien jarraipenean, berdintasunaren arloko teknikariek zer neurritan parte hartu duten ere.

2020an identifikatutako 30 planetan (aurreko ekitaldian baino 8 gutxiago), onetsitako sektorekako eta zeharkako plan edo programa estrategiko guztien neurketaren aldagai guztiak baliatu dira. Nabarmendu behar da hauek sartu izana: emakumeen eta gizonen desberdinkerien bilduma eta analisia jasotzen dituen diagnostikoa (9), emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuak (10) eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ekintzak (9).

15. grafikoa: Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2020




Koordinazio-egiturak

Koordinazio-egiturak funtsezko tresnak dira erakundeetan berdintasuna sustatzeko; izan ere, erakundeen arlo eta jarduera guztietan genero-ikuspegia sartzeko, ikuspegi metodologikoekin bateratzeko eta esperientziak eta ikaskuntzak zabaltzeko aukera ematen dute. 2020an, **29 erakundek jakinarazi dute sail arteko egiturak dituztela antolaketaren arlo guztietan berdintasun-politikak koordinatzeko**, eta **23k adierazi dute sai barruko koordinazio-egiturak dituztela** (Eusko Jaurlaritzako sailez gainera, bi aldundik eta 9 udalek adierazi dute). Sail arteko koordinazio-egiturek 160 bilera egin dituzte; 2019an baino askoz gutxiago, urte hartan 259 egin baitziren. Bileren % 78,1 (160tik 125) politikariekin eta teknikariekin egin dira. Sail barruko egiturei dagokienez, 245 bilera egin dira, eta udaletako bileren % 40,4 teknikarien eta politikarien arteko bilerak izan dira.

Horrez gainera, **50 erakundek koordinazio-egiturak dituzte berdintasunarekin lotutako gaietan** (2019an baino 4 gehiago), eta 61 erakundek emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduketa-protokoloak dituzte. Parte hartu duten erakunde guztiek lankidetzarako ildo bat dute gutxienez, eta/edo berdintasunaren arloko proiektu bereziak garatu dituzte nazioarteko edo beste herrialde batzuetako erakundeekin.

16. grafikoa: Sail arteko eta barruko egiturak eta 2020an egindako bileren kopurua



Azkenik, jakinarazi da 2 bilera egin direla erakunde arteko koordinazio-egituren artean, non Emakundek eta foru-aldundiek parte hartzen baitute. Bileretako batean politikariek baino ez dute parte hartu, eta bestean, teknikariek.

Estatistikak eta azterlanak

Azterlanak eta estatistikak funtsezkoak dira emakumeen eta gizonen desberdinkerien egoera eta bilakaera ezagutzeko arlo guztietan, eta, horregatik, 4/2005 Legearen 16. artikulua xedatzen du EAEko erakundeek genero-ikuspegia txertatu behar dutela egiten dituzten estatistika eta azterlanetan.

Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuaren sistematizazioa dela eta, bi gai azaleratu dira. Lehenengoa da, aurreko ekitaldietan bezala, gainditu gabeko ikasgaia dela EAEko erakundeetan, 21 erakundek baino ez baitute adierazi sistematikoki sartzten dutela sexuaren aldagaia beren azterlan eta estatistiketan (beste 4k batzuetan sartzten dute); eta lotutako beste gai batzuk, hala nola informazioa bereizita lantzea edo sexuaren aldagaia beste desberdinkeria batzuekin gurutzatzea, are gutxiagotan sartzten direla. Aurten, berriro salbuespena izan dira Emakunde, eta apur bat gutxiago, Eusko Jaurlaritzako sailak. Bigarrena da berdintasunaren arloko arduradunek zailtasunak dituztela erakundeetan sakon ezagutzeko erakundearen egoera orokorra.


Berdintasunaren arloan egindako azterlanei dagokienez, 2020an, berdintasunaren ezagutzari, balioari eta pertzepzioari buruzko 10 azterlan identifikatu dira, eta sektore jakin bateko emakumeen egoerari buruzko 32. Hortaz, guztira, 42 azterlan egin dira (2019ko kopuruaren antzekoa). Gizarte-politika, ekonomia eta enplegua, edo kultura, euskara eta kirola dira azterlan sektorial horien gai nagusiak.

Ordezkaritza orekatua

Administrazio publikoek zeregin bikoitza dute emakumeek eta gizonek antolaketaren barruan ordezkartza orekatua izan dezaten: lehenik, bakoitzaren antolaketan, erabaki-eremuetan ordezkartza orekatua izateko aurrerapausoak ematea; eta, bigarrenik, erreferente izatea gizarte osoarentzat.


Berdintasun-politiken jarraipenean bi eremu espezifikori buruz galdetu zaie erakundeei. Alde batetik, **enplegu publikoa eskuratzeko, hornitzeko eta sustatzeko epaimahaiei** buruz. 2020an, epaimahai gehienek ordezkaritza orekatua izan dute (deitutako epaimahaien % 64,3); beraz, aurrerapausoak eman dira 4/2005 Legearen 20. artikulua betetzeari dagokionez. Bestetik, **sariak emateko edo kultura-funtsak erosteko deitutako epaimahaiei** dagokienez, ordezkaritza orekatua izan dutenen proportzioak gora egin du eta % 82,6ra iritsi da.

17. grafikoa: Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua epaimahaietan 2020



EAEko erakundek identifikatutako **kide anitzeko 185 zuzendaritza-organoetatik**, % 45,4k emakumeen eta gizonen osaera orekatua dute. Eusko Jaurlaritzako sailek kide anitzeko zuzendaritza-organo gehiago dituzte identifikatuta (105, % 56,7), baina udalak dira organo horietan (46) emakumeen eta gizonen ordezkaritarik orekatuena duten erakundeak (esandakoen 30).

18. grafikoa: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2020



2.2. Esku hartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak

2020an, EAEn, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko 683 jarduketa identifikatu dira. Eusko Jaurlaritzako sailak, Emakunde edo foru-aldundiak dira egonkorrenak egindako ekintzen kopuruari dagokionez. Zehazki, udalek (% 38,8) eta Eusko Jaurlaritzako sailek (% 32,4) jarraipen honetan sartutako hiru ekintzetatik bi baino gehiago egin dituztela adierazi dute.

19. grafikoa: EAEn berdintasun-alarrean garatutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2020



Erakundeek egindako ekintzak oso ezberdinak dira helburuari, motari eta irismenari dagokienez. Hurrengo ataletan, aniztasun hori aztertuko dugu.

2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak

Berdintasunerako VII. Planak 3 ardatz ezartzen ditu: emakumeen ahalduntzea, ekonomien eta gizarte-antolakuntzaren eraldaketa eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren sustapena. Erakundeek garatutako ekintzen jarraipenean, lortu nahi dituzten helburu nagusiak identifikatzen dira, eta, helburu horien definizioan¹¹, adierazitako 3 ardatz horietan esku hartzeko ildo nagusiak sartzen saiatzen dira. Emakumeen ahalduntzeak ahalduntze pertsonal eta kolektiboari buruzko programak eta ahalduntze sozial eta politikoari buruzkoak hartzen ditu. Ekonomien eta gizarte-antolaketaren eraldaketak hiru programa ditu: berdintasuna aitortzea eraldaketa sozial eta ekonomikorako beharrezkoa balio gisa, emakumeen autonomia ekonomikoa eta zainketen ekonomia feminista. Azkenik, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren sustapenak beste hiru programa ditu: sentsibilizazioa eta prebentzioa; kaltearen detekzioa, arreta eta erreparazioa, eta erakundearen arteko koordinazioa.

¹¹ Beti ez da erraza helburu bakarra esleitzea ekintza bati, eta, beraz, helburu nagusiaz galdetzen da.

Aurreko ekitaldietan bezala, jarduketek bi helburu nagusi dituzte, planeko ardatz nagusiak orokorrean lantzen dituztenak: *gizartean berdintasunaren aldeko kultura sustatzea* (identifikatutako ekintzen % 27,6k helburu hori dute) eta *emakumeak ahalduntzea/sustatzea* (% 27). Beste helburu zehatzago bat ere nabarmentzen da, zeina egiturazkoa baita berdintasun-politiketan: *emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea* (ekintza guztien % 22,9), eta *zainketen arloan erantzunkidetasun soziala lortzea*¹² da gutxien jorratu dena erakundeek sustatutako ekintzetan (ekintza guztien % 3,4).

20. grafikoa: Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua. 2020



Adibide gisa, erakundeek garatutako jarduketaren artean, ohikoenak diren batzuk identifikatu ahal dira¹³:

- **Eusko Jaurlaritzako sailak:** informatutako ekintzen aniztasuna sail bakoitzak dituen eskumen zehatzen ondorio da.
- **Emakunde:** emandako zerbitzuekin lotutako ekintzak sartzen dira.
- **Foru-aldundiak:** sustatzen dituzten ekintzek nabarmendu egiten dute berdintasun-estrategien lurralde-sustatzaile gisa betetzen duten lana: udalerri, elkarte feminista eta emakume-elkarteei laguntzea herri-mailan edo lurralde-mailan berdintasuna garatzen; beste arlo batzuetan (sektorialak, lokalak) berdintasuna sustatzeko tresnak ikertzea eta ematea helburu duten ekintzak; hausnarketarako guneak sustatzea... Halaber, berdintasuna sustatu da lurraldeetako enpresetan, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko egituren bidez.
- **Udalak:** mobilizatzeko eta ikusarazteko jarduerak antolatu ohi dituzte data esanguratsuetan (martxoaren 8a, azaroaren 25a...); sentsibilizazio- eta lan-jarduerak zenbait eragileekin, emakumeen aurkako erasoak saihesteko jaietan; prestakuntza eta tailerrak (emakumeen ahalduntzea, autodefentsa, berdintasunaren sustapena gazterian...). Halaber, emakumeek udalerrian betetzen duten eginkizuna ikusarazteko ekintzak, herriko eragileekin (osasuna, segurtasuna, hezkuntza...) koordinatzeko ekintzak egiten dituzte. Udalerrri handienek zerbitzu espezifikoak ere ematen dituzte, orientazioa eskaintzeko eta gizartean esku hartzeko, eta zenbait baliabide dituzte, hala nola indarkeria jasan duten biktimak hartzeko etxeak edo emakume-etxeak. Mankomunitateek, kuadrillek eta partzuergoek antzeko ekintzak adierazi dituzte.
- **Erakunde autonomoak eta entitate publikoak**¹⁴: 2020ko informazioaren arabera, ekintza gehienek helburua emakumeen ahalduntzea edo sustapena izan da. Horrez gainera, ohiko gaiak izan dira osasuna eta kontsumoa.
- **Kapital publikoko sozietateak:** emandako informazioan adierazitako esku-hartze gehienak lotuta egon dira emakumeen ahalduntzearekin edo sustapenarekin, eta gehien agertutako gaia ekonomia izan da.

¹² Zaintza-lanen aitorpena, balorazioa eta birbanaketa sartzen dira.


¹³ Ekintzen kostuen atalean, aurrekontu handiagoa duten eremu batzuk nabarmendu dira.

¹⁴ Erakunde horiek sektorialak dira gehienbat, eta, beraz, ekitaldi bakoitzeko partaideen arabera, nabarmen aldatzen da ekintzen tipologia.

2.2.2. Berdintasun-ekintzen gaiak

3 gai izan dira egindako esku-hartzeen % 63,4ren ardatza: *gizarte-politika, hezkuntza, eta osasuna eta kontsumoa*. Udaletan, *gizarte-politika eta hezkuntza* izan dira esku-hartze askoren ardatza (57 eta 42, hurrenez hurren); Eusko Jaurlaritzako sailetan, aldiz, ekintza gehienak *osasun eta kontsumoarekin* lotuta egon dira (67).

21. grafikoa: Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketaren kopurua. 2020



2.2.3. Esku-hartzeen motak

EAEko botere publikoek berdintasunaren arloan garatu dituzten ekintzak hainbat tipologiatan banatu dira haien bilakaera aztertu eta baloratzeko. Hauek dira:

- arauak emateko esku-hartzeak (deialdietan berdintasun-irizpideak sartzea, protokoloak onestea...);
- ekonomikoak (dirulaguntzak eta laguntzak ematea, beste erakunde batzuek, hirugarren sektoreak edo herritarrek berariazko esku-hartzeak gara ditzaten);
- herritarrei eta zerbitzu publikoei zuzendutako prestakuntza-ekintzak;
- sentsibilizazio, hedapen eta komunikaziorako esku-hartzeak (jardunaldiak, kanpainak, materialen edo liburuxken argitalpena eta banaketa...).
- informazio, ezagutza eta analisirako ekintzak (txostenak, azterlanak, diagnostikoak, datu estatistikoak eta abar);
- zerbitzu, baliabide eta/edo ekipamenduak sortu eta kudeatzekoak (indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzuak, taldeei informazioa emateko zerbitzuak edo orientazioa emateko baliabideak...);
- herritarrek parte hartzeko eta herritarrei kontsultatzeko ekintzak (berdintasunaren arloko politikak edo neurriak definitzeko, haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko), eta
- unitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuen artean koordinatzeko eta ituntzeko esku-hartzeak (tokiko, probintziako, erkidegoko eta/edo nazioarteko hitzarmen, akordio eta protokoloen harpidetza eta kudeaketa).

Erakundeak lehenetsitako tipologia identifikatzen saiatzen badira ere, jarduketa bat tipologia batekoa baino gehiagokoa izan daiteke, eta bikoiztasun hori ohikoa da bereziki sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzetan edo erakunde arteko koordinaziorako ekintzetan, sarritan esku hartzeko ardatz bikoitza izaten baitute (adibidez, ohikoak dira hedapena eta sentsibilizazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa, koordinazioa eta prestakuntza, eta abar).

Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-ekintzak dira ohikoenak: erakundeek emandako informazioan jasotako ekintzen % 26,9 halakoak dira, osorik edo partzialki. Udalek egindako jarduketak dira informazioan jasotako tipologia horretako ekintza guztien erdia (entitate horiek egin dituzten 240 ekintzetatik 120), eta ugariak dira Eusko Jaurlaritzako sailek egindako ekintzak ere (50).

Aurreko ekitaldietan bezala, **jarduketa ekonomikoak** (139, guztien % 15,6) dira bigarren esku-hartze ohikoena 2020an. Udalak (48 ekintza) eta Eusko Jaurlaritzako sailak (44) dira halako ekintza gehien egin dituzten erakundeak, baina foru-aldundietan ere pisu nabarmena dute (18 ekintza).

Antzeko presentzia dute **informazio, ezagutza eta analisirako ekintzek** (121 esku-hartze; % 13,6). Eusko Jaurlaritzak (60), udalek (25) eta Emakundek (20) egin dituzte ekitaldi horretan azterlan eta analisi gehien.

Unitateen, erakundeen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta hitzarmenak lortzeko esku-hartzeek 81 ekintza eragin dituzte, eta nabarmentzekoa da udalek sustatutakoen kopurua (31).

Administrazio publikoen mendeko zerbitzu publikoetako **profesionalei prestakuntza emateko** egin diren 55 jarduketetatik 26 Eusko Jaurlaritzako sailek egin dituzte, eta 16, udalek.

Protagonismo berezia dute berdintasuna sustatzeko arauak, protokoloak eta bestelakoak egin eta/edo berrikustea helburu duten **esku-hartze arautzaileek ere**. Eusko Jaurlaritzako sailek (informazioan jasotako 54 ekintzetatik, 28), udalek (11 ekintza) eta Emakundek (8 ekintza) egin dituzte halakoak.

Herritarren parte-hartzearen eta kontsultaren arloa da gutxien jorratu dena, eta udalek egin dituzte ekintza gehienak: identifikatutako 41 jarduketetatik 29. Izan ere, eremu horretan hasten dira sarriago parte hartzeko prozesuak edo zabaltzen dira parte hartzeko edo kontsulta egiteko espazioak, berdintasuna sustatzeko politikak definitzeko begira (arlo orokorrean edo gai zehatzetan).

22. grafikoa: Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2020



Hurrengo epigrafeetan, esku-hartze horietako batzuen irismenari eta ezaugarriei buruzko informazio zehatzagoa azaltzen da.


2.2.3.1.- Prestakuntza

EAEko erakundeek sustatzen duten berdintasunaren arloko prestakuntzak bi hartzaile ditu: batetik, herritarrek, eta, bestetik, erakundeetako zerbitzu publikoetako profesionalak.

2020an, **herritarrentzako berdintasun-alorreko prestakuntzarako ekintzek** 20.862 parte-hartzaile izan dituzte¹⁵. Datuak sexuaren arabera banakatuta, emakumeak dira gehienak, 10.332 izan baitira; gizonak, berriz, 6.605. Kopuru hori 2019koa baino handiagoa da, baina emakumeen proportzioa mantendu egin da: % 61 inguru (10.136 emakume eta 16.649 gizon). Udalek antolatu dituzte herritarren erdiaren baino gehiagoren prestakuntza-ekintzak (% 53,7).


¹⁵ Prestakuntza-ekintzetako 5.000 partaide baino gehiago ez daude sexuaren arabera banakatuta; beraz, datu globalak ez datoz bat.

23. grafikoa: EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrek), erakundearen arabera. 2020




Prestakuntzarako esku-hartze horien helburu nagusia izan da berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea (identifikatutako prestakuntza-ekintzen % 74,3k helburu hori izan dute). Prestakuntzan parte hartu dutenei beren lanbide-jardueran berdintasun-printzipioak aplikatzen laguntzea izan dute helburu jardueren % 20,5ek. Emakundek, udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek sustatutako prestakuntza izan da ohikoagoa helburu hori. Gutxiengoa dira prestakuntza parte hartu dutenen enplegarritasuna hobetu nahi izan duten ekintzak. Prestakuntza-ekintzen % 16,6k eman diete parte-hartzaileei prestakuntza egin izanaren ziurtagiria edo akreditazioa.

24. grafikoa: Herritarrek trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2020




2020an, **zerbitzu publikoetako profesionalei** (irakasleak, osasun-langileak...) **zuzendutako berdintasunari buruzko prestakuntza** izandako parte-hartzeak behera egin du aurreko ekitaldiekin alderatuta: 9.983 profesional. Sexuaren arabera banakapena orekatua da. Eusko Jaurlaritzako sailek eta Emakundek sustatu dute parte hartu duten profesionalen % 95,8ren prestakuntza.

25. grafikoa: EAEn berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2020




Zerbitzu publikoetako profesionalen prestakuntzan, 32 ekintzaren helburua izan da prestakuntza hori lanbide-jardueran aplikatzea, baina zenbait ekintzatan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutza hobetzearekin uztartu da. Ekintza horietatik, 13tan ziurtagiria eman da.

26. grafikoa: Zerbitzu publikoentzako prestakuntza-jarduketaren kopurua, helburuaren arabera. 2020



Esan den bezala, datuak ez datoz bat bi prestakuntza horietan guztira izandako parte-hartzearekin, baina, bietan emakumeak gehiengoa izan arren, ikusten da zerbitzu publikoetako langileen prestakuntzan orekatuagoa dela bi sexuen presentzia (% 53,1, emakumeak); herritarrentzako prestakuntzan, berriz, emakumeak % 61,0 dira.


27. grafikoa: Herritarrentzako prestakuntza eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntza parte hartu dutenen kopurua. 2020



2.2.3.2.- Sentsibilizazioa


2020an, nabarmen gora egin du emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko **sentsibilizazio-ekintzetan** parte hartu duten pertsonen kopuruak: 108.431 herritarrengana iritsi dira ekintza horiek (aurreko ekitaldietako kopurua baino askoz handiagoa da). Ekitaldi honetan, berriro izan dira emakumeak esku-hartze horien hartzaile nagusiak (53.837), baina gizonek ere parte hartu dute (45.003). Emakundek sustatutako esku-hartzeak pertsona askorengana iritsi dira: 6.941, guztira.

28. grafikoa: Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2020



Garatutako sentsibilizazio-ekintzen tipologiari dagokionez, era askotakoak izan dira eta jardun-lerro bat baino gehiago uztartu dituzte. Hala, egindako ekintzen % 32,6ren ardatza jardunaldi, erakusketa edo solasaldiak antolatzea izan da, eta esku-hartzeen % 29,2tan sentsibilizazio-materialak sortu eta banatu dira.

29. grafikoa: Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2020




2.2.3.3.- Informazioa, ezagutza eta analisia

Gizarteak etengabe aldatzen ari dira; hori dela eta, berdintasun-politikak diseinatzerakoan, ezagutza eguneratua hartu behar da oinarritzat, desberdinkeriak eragiten dituzten faktoreen bilakaera kontuan hartuta.


Eusko Jurlaritzako sailek jakinarazi dute 2020an 60 esku-hartze egin direla EAEko emakumeen eta gizonen desberdinkerien *informazioari, ezagutzari eta analisiari* lotuta. Eremu horretan, udalek 25 jarduketa egin dituzte, eta Emakundek, 20.

30. grafikoa: Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2020



Diagnostikoak edo azterlanak egitea izan da esku-hartze horietako askoren ardatza (38), baina askotan izan dute helburutzat *datuak biltzea edo informazioa biltzeko sistema aldatzea* (29) eta *ebaluazio-txostenak egitea* (25). Ohikoak dira, halaber, berdintasun-estrategiak eta -politikak hobetzeko *proposamenak aurkezten dituzten txostenak* (26). *Jarduteko barneko jarraibideak berrikusteari edo aldatzeari* dagokionez, ez da oso ohikoa izan 2020an (8 ekintza egin dira helburu horrekin).


31. grafikoa: Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarritzko edukiaren arabera. 2020



2.2.4. Ekipamenduak eta zerbitzuak sortu eta kudeatzea


Eusko Jaurlaritzako sailek (25) eta udalak (15) egin dituzte *baliabideak, zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko* ekintza gehienak. Emakumeen ahalduntzea sustatzea da baliabide edo zerbitzu horien gehienen helburua (17), baina ohikoa da emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematea ere helburu izatea (14). Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko informazioa, dokumentazioa eta aholkularitza emateko esku-hartzeak (9) eta erantzunkidetasuna sustatzekoak (5) gutxienak izan dira.

32. grafikoa: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2020



Aurten 15 baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berri sortu direla jakinarazi da, eta Eusko Jaurlaritzako sailek (8) eta udalek (7) kudeatutakoak dira. Beste 30 ekintza aurretiaz zeuden baliabide, zerbitzu edo ekipamenduak kudeatzeko eta/edo aldatzeko izan dira. Haietako 21 Eusko Jaurlaritzako sailek kudeatzen dituzte. Halako zerbitzu, baliabide edo ekipamenduetako 9tan emakume eta gizonen diferentziei eta beharrei buruzko diagnostikoa egin da, eta beste 20tan zerbitzuak berdintasunean espezializatutako langileak ditu. Hala da, batez ere, udalei esker, jakinarazi baitute 12 zerbitzutan dituztela halako langileak.

33. grafikoa: Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2020




2.2.5. Berdintasun-ekintzen onuradunenganako hurbilpena (erakundeak nahiz pertsonak)

2.2.5.1.- Ekintzen onuradunak

EAEko erakundeek berdintasuna sustatzeko ekintzak egiten dituzte, gehienak gizarte osoari zuzenduta. Hala ere, sexu jakin bateko pertsonentzat egindakoetan, emakumeentzat izaten dira gehienbat. 2020an mantendu egin da egoera hori, eta esku-hartze gehienak emakumeentzat izan dira (% 70,1), eta gutxiago gizonentzat (% 18,6) eta beste identitate batzuk dituzten pertsonentzat (% 11,4).


Esku-hartzeen xede diren eremuei dagokienez, ohikoenak administrazio publikoei zuzendutakoak dira (% 29,1); gero, eremu zibilekoak (% 21,3) eta arlo pertsonalera edo familiei zuzendutakoak (% 20,7).

34. grafikoa: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2020




Gazteentzat izan dira esku-hartze gehienak, erakunde guztietan, eta bereziki udalek garatutakoak (38 ekintza). Gainerako biztanle-taldeak helburu lehenetsia izan dira antzeko kopuruetan: 10, errenta txikientzat, eta 17, adinekoentzat, udaletan. «Beste batzuk» multzoan talde oso espezifikoak edo genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak daude¹⁶.

35. grafikoa: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2020



Garatutako zenbait esku-hartzek emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak murrizteko edo desagerrarazteko oinarritzko helburua eta adinari, sexu-aukerari, etniari, arrazari eta bestelakoei lotutako beste desberdinkeria batzuei aurre egiteko helburua uztartu dituzte. Adina eta sexu-aukera dira desberdinkeriaren eragile gisa gehien landu diren aldagaiak (61 eta 60, hurrenez hurren). Emakundek antzeko zifrak ditu kategoria bakoitzean: 6, jatorri sozialak eragindako desberdinkeriei aurre egiteko; 10, adinak eragindakoei aurre egiteko eta abar. Sexu-aukerak eta adinak eragindako desberdinkeriei aurre egitea izan da helbururik ohikoena udaletan (44, kasu bakoitzean). Eusko Jaurlaritzari dagokionez, hor ere sexu-aukerari lotutako esku-hartzea izan da nabarmenena (6).

36. grafikoa: Bestelako desberdinkeriak borrokatzera bideratutako ekintzen kopurua 2020




¹⁶ Adibidez, osasun-arazo jakin batzuk dituzten emakumeak edo titulazio edo merezimendu profesional jakin batzuk dituzten emakumeak, tratatu txarrak ematen dituzten gizonak eta abar.

2.2.6. Ekintzak egokitzeko neurrien erabilera

Ez da ohikoa, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko egiten dituzten esku-hartzeetan, erakundeek egokitzapen-neurriak sartzeari halakoak behar dituzten pertsonen parte-hartzea errazteko. Neurri horietako batzuk dira gorrentzako itzulpena, irisgarritasun fisikoa eta komunikatiboa gune presentzialetan edo birtualetan, edo migratzaileentzako egokitzapenak (beste hizkuntza batzuetarako itzulpena). Informazioan jasotako ekintzen % 6,4 baino ez dira. Udalak dira migratzaileentzako egokitzapenak sartzeko ekintza gehien (13) egin dituztenak; Emakumek, berriz, 8 esku-hartze egokitu ditu desgaitasunak dituzten pertsonentzat.

37. grafikoa: Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2020



2.2.7. Esku-hartzeen kostua

2020an, jarduketa-fitxen bidez identifikatutako zenbatekoa 112.590.396 euro da, aurreko ekitaldikoa (111.183.456 euro) baino apur bat handiagoa. Jarduketen kostu osotik, % 93,1 Eusko Jaurlaritzako sailek sustatutako jarduketei dagokie, eta, zehazki, Hezkuntza Sailaren bi jarduketari (0 eta 3 urte arteko umeentzako hezkuntzaren arlokoak; azken 3 edizioetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten esku-hartze gisa sartu dira), eta ekitaldi honetan identifikatutako kostuaren % 73,5 hartu dute.

2020an, erakundeek adierazi dute **emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko** jarduketak egin dituztela, eta, guztira, ia 6,1 milioi euro gastatu dituztela (Eusko Jaurlaritzako sailek, 4 milioi; Emakundek, 719.757 €; udalek, 791.723 €, eta foru-aldundiek, 573.025 €). Ekintza horien barruan sartzen dira babesa, laguntza juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta abar, baita hainbat eremutan emakumeen aurka erabilitako indarkeriaz sentsibilizatzeko, prestakuntza emateko eta indarkeria hori prebenitzeko ekintzak ere.


Gizartean balioen aldaketa sustatzeko egindako jarduketen aurrekontua 5,3 milioi eurokoa izan da. Ekintza horietako gehienak Eusko Jaurlaritzako Sailek egin dituzte (3,3 milioi). Gero, Emakundek (1,2 milioi) eta, gutxiago, udalek (380.727 euro).

Arlo guztietan (ekonomikoa, politikoa, soziala...) emakumeen **ahalduntzea sustatzeko** ekintzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako sailek (kostu handiena: 3,8 milioi), foru-aldundiek (1,3 milioi) eta udalek (852.466 euro) egin dituzte halakoak.

Zaintza-lanetan **erantzunkidetasuna** sustatzeko ekintzek bildu dute 2020an identifikatutako gastuaren proportziorik handiena, 84 milioi eurokoa izan baita, gorago azaldutako Hezkuntza Sailaren jarduketaren ondorioz. Foru-aldundiek (112.000 euro), udalek (28.529 €) eta Emakundek (12.595 euro) ere sustatu dituzte jarduketak helburu hori lortzeko.


Aurreko ekitaldietan bezala, erakundeen informazioan jasotako ekintzen % 57,5ek kostua sartu dute; gainerako jarduketa gehienak erakundeetako langileek egin dituzte.

38. grafikoa: EAEn berdintasun-alarrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta dutenak. 2020



Emakundek jakinarazitako 67 ekintzetatik kostua identifikatuta izan duten 44 esku-hartzeek 2,8 milioi euroan kokatu dute erakunde horrek guztira aurkeztutako kostua. Foru-aldundiek kopuru txikiagoa dute (2,6 milioi euro), informazioan jasotako 42 jarduketetatik 33ri dagokiena. Batez besteko kostu txikiagoa dute udalen informazioan jasotako 266 jarduketetatik 197k (2 milioi euro). Azkenik, Eusko Jaurlaritzako sailek jakinarazitako 94 jarduketek informazioan jasotako jarduketaren kostuaren % 93,1 eragin dute.

39. grafikoa: Jakinarazitako jarduketan kostu osoa, erakundearen arabera (milakoetan). 2020



**II. ZATIA:
EUSKAL HERRI-AGINTEEK
BERDINTASUNAREN ARLOAN DUTEN
JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIO
ZEHATZA. 2020**

1. GOVERNANTZA

Kapitulu honetan jasotako informazioa erakundeen datuak jasotzen dituzten tauletan aurkezten da, Memoriaren egiturari jarraiki.

1.1. Berdintasunaren arloko araudia

	Berdintasunerako araudia		Jarraipen sistema
	Badute	bidean	
Foru Aldundiak	2	1	1
Udaletxeak	5	4	6
GUZTIRA	7	5	7

1.2. Berdintasunaren arloko plangintza

G1: Berdintasunaren arloko plangintza handitzea eta hobetzea.

a) Berdintasuna sustatzeko planak eta programak

